Bestelako Xedapenak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2796

EBAZPENA, 2011ko apirilaren 11koa, Ingurumeneko sailburuordearena. Honen bidez, Bizkaiko Ereñoko udalerrian Canteras Zubiondo SL enpresak sustatzen duen «Zubiondo Harrobia UEa ustiatuko den gunea handitzeko proiektua»-k ingurumenean duen eraginaren ebaluazioaren prozedura betetzeko erabakia hartzen da.

Ingurumen sailburuordearen 2002ko martxoaren 4ko Ebazpen bidez –2002ko apirilaren 16ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 71. zenbakia–, Ereñoko udalerrian Ignacio Zabala Urrengoechea jaunak sustatzen duen Zubiondo harrobiaren Ustiapen Proiektuak Ingurumenean duen Eraginaren Adierazpena eman zen.

2010eko abenduaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzak eskabide bat igorri zion Ingurumen Sailburuordetza honi, ingurumen-organo honek bere irizpena eman zezan, Zubiondo Harrobia UEa ustiatzeko gunea handitzeko proiektuak Ingurumenaren gaineko eraginaren banakako ebaluazioaren prozedura bete behar duen, Proiektuek Ingurumenean duten Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2010eko abenduaren 22an, Ingurumen sailburuak kontsulta egin zien Zubiondo Harrobia UEa ustiatzeko gunea zabaltzeko proiektua gauzatzeak eragiten dien administrazio eta erakundeei, jarduketa hori ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozeduraren pean jarri beharraz, eta, hala balitz, Proiektuek Ingurumenean duten Eraginaren Ebaluazioaren Legearen testu bategina onesten duen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.2 artikuluan xedatutakoaren arabera ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanean jaso behar litzatekeen edukiaz eta gutxieneko irismenaz.

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikulua aplikatuz, (beraren bidez onartu zen proiektuek ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina) eta II. eranskineko 9.k atalarekin bat etorriz, I eta

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

2796

RESOLUCIÓN de 11 de abril de 2011, de la Viceconsejera de Medio Ambiente, por la que se adopta la decisión de someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el «Proyecto de ampliación de la zona a explotar en la C.E. Cantera Zubiondo» promovido por la empresa Canteras Zubiondo, S.L., en el término municipal de Ereño (Bizkaia).

Resultando que mediante Resolución de 4 de marzo de 2002, del Viceconsejero de Medio Ambiente, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco número 71, el 16 de abril de 2002, se formuló Declaración de Impacto Ambiental del Proyecto de Explotación de la Cantera Zubiondo promovido por D. Ignacio Zabala Urrengoechea en el término municipal de Ereño.

Resultando que con fecha 14 de diciembre 2010, la Dirección de Energía y Minas del Gobierno Vasco remitió a esta Viceconsejería de Medio Ambiente solicitud de pronunciamiento de este órgano ambiental sobre la necesidad de someter el proyecto de ampliación de la zona a explotar de la C.E. Cantera Zubiondo al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, según lo establecido en el artículo 16 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos.

Resultando que con fecha 22 de diciembre de 2010, la Viceconsejería de Medio Ambiente procedió a consultar a las administraciones e instituciones afectadas por la ejecución del proyecto de ampliación de la zona a explotar de la C.E. Cantera Zubiondo, sobre la necesidad de someter dicha actuación al correspondiente procedimiento de evaluación de impacto ambiental, y en su caso, respecto al contenido y alcance mínimo que debiera contemplar el estudio de impacto ambiental, de acuerdo con lo previsto en el artículo 17.2 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de Proyectos.

Considerando que en aplicación del artículo 3 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de Proyectos, puesto en relación con el apartado 9.k) del anexo II,

II eranskinetan jasota egon eta dagoeneko onartuta, gauzatuta edota gauzatzen ari diren proiektuetan edozein aldaketa egin edo handitzeko ingurumenaren gainean izango duten eraginaren ebaluazioa beharko dute, kasu bakoitzean dagokion ingurumen organoak hala erabakitzen badu.

Urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikuluak xedatzen du II. eranskinean jasotako proiekturen bat egin nahi duen pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, autonomia-erkidego bakoitzak xedatzen duen organoari proiektua ingurumenaren gaineko eraginari buruzko ebaluaziotik pasarazi beharrari buruz irizpena emateko eskatuko diola, III. eranskinean ezartzen diren irizpideen arabera.

Aipatutako arauko 17. artikuluaren arabera, aurreko artikuluan aipatutako eskabidea jasotzen duen organoak azalduko du ea proiektuak ingurumenaren gainean duen eragina ebaluatu behar den ala ez, autonomia-erkidegoak ezartzen duen epean. Hala ere, aurretik, proiektuaren betearazpenaren ondorioak jasango dituzten administrazioak, pertsonak eta erakundeak kontsultatuko dira, eta proiektuaren ingurumen arloko dokumentua haien eskueran jarriko da.

Ingurumen organoak aurretiazko kontsultak bideratu ditu Zubiondo Harrobia UEa ustiatzeko gunea handitzeko proiektuak ebaluazioa behar ote duten erabakitzeko. Izapide horretan, ondorengo erakundeen erantzunak jaso dira: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Sailaren Osasun Publikoko Zuzendariordetza, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza, Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Ereñoko Udala.

Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak bidalitako txostenaren arabera, ez da beharrezkoa proposatutako handitzeak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura betetzea.

Ereñoko Udalaren txostenean ezinbestekotzat jotzen da proiektuak ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura betetzea, 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera.

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiak adierazten du proiektuak arkeologia-potentzial handiko gune bati eragiten diola, gune karstikoa delako eta bertan arkeologia-aztarnategi garrantzitsuak dituzten Ereñoko Aulesti kobak daudelako.

Proposatutako handitzeak haitza erauzteko azalera modu esanguratsuan areagotuko du (% 23,68), eta erauzketa horrek eragingo dituen ondorioak ere bai,

cualquier cambio o ampliación de los proyectos que figuran en los anexos I y II, ya autorizados, ejecutados o en proceso de ejecución debe someterse al procedimiento de evaluación de impacto ambiental cuando así lo determine el órgano ambiental en cada caso.

Considerando que el artículo 16 del citado Real Decreto Legislativo 1/2008 de 11 de enero determina que la persona física o jurídica, pública o privada, que se proponga realizar un proyecto de los comprendidos en el anexo II solicitará del órgano que determine cada comunidad autónoma que se pronuncie sobre la necesidad o no de que dicho proyecto se someta a evaluación de impacto ambiental, de acuerdo con los criterios establecidos en el anexo III.

Considerando que el artículo 17 de la citada norma establece que el órgano que reciba la solicitud a la que se refiere el artículo anterior se pronunciará sobre la necesidad de que el proyecto se someta o no a evaluación de impacto ambiental en el plazo que determine la comunidad autónoma, si bien previamente se consultará a las administraciones, personas e instituciones afectadas por la realización del proyecto, poniendo a su disposición el documento ambiental del proyecto.

Considerando que en el marco del trámite de consultas llevado a cabo por el órgano ambiental en orden a determinar la necesidad de someter el proyecto de ampliación de la zona a explotar de la C.E. Cantera Zubiondo, se han recibido las respuestas de la Subdirección de Salud Pública de Bizkaia del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco, de la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental del Gobierno Vasco, de la Dirección de Patrimonio Cultural del Gobierno Vasco, de la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia y del Ayuntamiento de Ereño.

Considerando que el informe emitido por la Dirección de Biodiversidad y Participación Ambiental concluye que no considera necesario someter la ampliación propuesta al procedimiento de evaluación de impacto ambiental.

Considerando que el Ayuntamiento de Ereño en su informe señala como imprescindible el sometimiento al procedimiento de evaluación de impacto ambiental del proyecto en atención a los criterios establecidos en el anexo III del Real Decreto Legislativo 1/2008.

Considerando que la Dirección General de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia pone de manifiesto que el proyecto afecta a una zona de potencial arqueológico alto, al tratarse de una zona kárstica donde se sitúan las cuevas de Ereñiko Aulesti que contienen importantes yacimientos arqueológicos.

Considerando que la ampliación planteada supondrá un aumento significativo (23,68%) de la superficie de extracción de roca así como un aumento pre-

hau da, bai sortuko diren hondakinak, eta bai atmosferarako isurketak, zaratak eta dardarak, Ebazpen honen xede den handitzean harrobiaren bizitza luzatzea proposatzen baita.

Aurreko horretatik ondorioztatzen denez, Zubiondo Harrobia UEan ustiatzeko gunea handitzeko proiektu berriak bete egin behar du ingurumenaren gaineko eraginaren beste ebaluazio bat; izan ere, urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretu horren III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera, proiektuak ingurumenean ondorio negatiboak izan ditzakeela irizten zaio.

Organo honek ebazpen hau idazteko eskumena du, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

Ikusirik espedientean ageri diren txostenak, Euskal Herriko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, eta aplikazioko gainerako arauak,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Canteras Zubiondo SLk Bizkaiko Ereñoko udalerrian sustatzen duen «Zubiondo Harrobia UEa ustiatzeko gunea handitzeko proiektua»-k ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioaren prozedura bete behar duela.

Proiektuen ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartu zuen urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 17.3 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, eta aipatutako errege-dekretu horren 8.3 artikuluari jarraituz, ingurumen-organoak sustatzaileari helaraziko dio, Ebazpen honen edukiaz gain, ingurumenaren gaineko eraginaren azterlanak izan behar duen zabalera eta xehetasun-maila, egindako kontsultetarako jaso diren erantzunekin batera, proiektuaren izapidetzearekin aurrera egiteko, aipatutako arauan aurreikusitakoren arabera.

Bigarrena.– Ebazpen honen edukia Eusko Jaurlaritzako Energia eta Meategien Zuzendaritzari, Ereñoko Udalari eta Canteras Zubiondo SL proiektuaren sustatzaileari jakinaraztea.

visible de los impactos que dicha extracción genere, es decir, tanto de la generación de residuos, como emisiones atmosféricas, ruidos y vibraciones debido al aumento del periodo de vida de la cantera propuesto en la ampliación objeto de esta Resolución.

Considerando que de lo anterior se concluye que el nuevo proyecto de ampliación de la zona a explotar de la C.E. Cantera Zubiondo debe someterse a un nuevo procedimiento de evaluación de impacto ambiental ya que, en atención a los criterios establecidos en el anexo III del citado Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, se considera que el proyecto puede tener efectos negativos significativos sobre el medio ambiente.

Considerando la competencia de este Órgano para el dictado de la presente Resolución, de acuerdo con lo dispuesto en el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca.

Vistos los informes que obran en el expediente, la Ley 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, el Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de proyectos, el Decreto 629/2009, de 22 de diciembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común y demás normativa de aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Someter al procedimiento de evaluación de impacto ambiental el «Proyecto de ampliación de la zona a explotar de la C.E. Cantera Zubiondo» promovida por Canteras Zubiondo, S.L., en el término municipal de Ereño (Bizkaia).

De acuerdo con lo previsto en el artículo 17.3 del Real Decreto Legislativo 1/2008, de 11 de enero, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Evaluación de Impacto Ambiental de Proyectos, el órgano ambiental junto con el contenido de la presente Resolución, da traslado al promotor, de acuerdo con el artículo 8.3 del citado Real Decreto, de la amplitud y del nivel de detalle del estudio de impacto ambiental junto con las contestaciones recibidas a las consultas efectuadas, para que continúe con la tramitación, de acuerdo con lo previsto en la citada norma.

Segundo.– Comunicar el contenido de la presente Resolución a la Dirección de Energía y Minas del Gobierno Vasco, al Ayuntamiento de Ereño y al promotor del proyecto, Canteras Zubiondo, S.L.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Laugarrena.– Ebazpen honek ez du administraziobidea amaitzen. Beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburu andrearen aurrean, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jasotzen duen egunaren biharamunetik hasita. Horrela ezartzen du Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak 114. artikuluan eta ondorengoetan; urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 11.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.

Tercero.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

Cuarto.– Contra la presente Resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su notificación, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Júridico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de abril de 2011.

La Viceconsejera de Medio Ambiente,
NIEVES TERÁN VERGARA.